

**LEHENENGO ARIKETA. (5 puntu)**

**Ariketa honetan elkarrizketa bat duzu. 5 erantzun (6-10) dituzu alde batetik, eta (A-H) galderak bestetik. Zuk galderak eta erantzunak taulan parekatu behar dituzu. 0 erantzuna adibidea da eta bi galdera sobera daude.**

Igor Ijurra, Iruñeko Orfeoiko zuzendaria

**“MUSIKA BESTE HIZKUNTZA BAT DA, ETA BEREZIA”**

GALDERAK

- |   |  |
|---|--|
| <p>A. Musika hizkuntza unibertsala omen da. Zer transmititzen dizu zuri?</p> <p>B. <b>Nola sortu zitzaizun musikarako zaletasuna?</b></p> <p>C. Orfeoian entzuten al da euskararik?</p> <p>D. Soziologoek esanetan, pertsona bakoitzak erabakitzen du noiz, non eta norekin erabili hizkuntza edo hizkera bat. Noiz baliatzen zara zu musikaz?</p> <p>E. Unibertsitatean ikasitakoak balio dizu musika zuzendari izateko?</p> <p>F. Zein proiektu duzu buruan?</p> <p>G. Zuzenbidea ikasi zenuen lehenbizi, gero musika zuzendari aritzeko?</p> <p>H. Zuzentzeko asko al dago Iruñeko Orfeoian?</p> | <p>0. - <i>“Nik beti esaten dut hitz egiten eta abesten batera ikasi nuela. Gure aitona Urbanorekin orduak eta orduak igarotzen nituen eta berak, zurgin moduan altzariak egiten zebilela, bere kontu zahar eta anekdotak kontatzen zizkidan han-hemenka euskal kanturen bat abestuz. Bestetan bibolina jotzen zuen. Une magikoak ziren niretzat, sekula ahaztuko ez ditudanak Gerora, sei urte nituela, solfeoa ikasten hasi nintzen herriko organista izandakoarekin eta orain arte, 27 urte ikasi eta ikasi”.</i></p> <p>6. - <i>“Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide Ekonomikoa ikasteko onartu ninduten, baina, musika ikasketak egiten jarraitzeagatik, Iruñean geratu nintzen. Zuzenbide ikasketak bukatzean, zera pentsatu nuen: zergatik ez egin musikaren aldeko apustua?”.</i></p> <p>7. - <i>“Bai noski. Eta ez bakarrik musika. 100 gizon-emakume talde bat eramateko ezker esku luzea behar da. Askotan arazorik handiena alde psikologoa da, eta motibazioa”. (...)</i></p> <p>8. - <i>“Emozioak batez ere. Musika horrek hitzik badu eta, gainera, hitz horiek zugaragin badute, musika on batekin uztarturik bere eragin hori biderkatu egiten da. Hori musika koralar dagokionez. Musika instrumental soilak bere aldetik, entzumen plazerra sortzen du, baita emozioak ere”.</i></p> <p>9. - <i>“Musika, noski, beste hizkuntza bat da, berezia. Ez da, euskara edo erdara diren bezala, komunikazio bide edo sare zuzena, baina batzuetan haiek ordezkari ditzake: kantu batek egoera jakin batean hitz soil batek baino indar handiagoa izan dezake: pentsa ereserki edo himnobatek nola pizten duen futbol partida batean, edo mitin politiko batean entzuleriaren sentimendua eta emozioa... “.</i></p> <p>10. - <i>“Bai. Gero eta euskaldun gehiago dago nahiz eta kopurua murrizta izan. Baina batez ere ni euskalduna izateak batzuei euskaraz hitz egiteko lotsa-edo kendu diela dirudi”.</i></p> <p>(...)</p> |
|---|--|

Mikel Balerdi – Aldapa aldizkaria

Erantzuna	0	6	7	8	9	10
Galdera	B					

## BIGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Ariketa honetan web orrialde bat duzu. Zuk ez duzu testu guztia irakurri beharrik, nahikoa duzu 5 galderak (11-15) erantzuteko behar duzun informazioarekin. Erantzunek gehienez ere 6 hitz izan behar dituzte.

0. galdera adibidea da.

<p><b>Helbidea:</b> MUSEO CHILLIDA-LEKU Jauregi auzoa, 66 20120 Hernani Tel: 943336006 Faxa: 943335959</p> <p><b>Automobilez:</b> Museoan 100 automobilentzako aparkalekua dago. (16 eserleku edo gutxiagoko ibilgailuentzat)</p> <p><b>Autobusez:</b> Garayar autobus enpresaren G2 autobusa ordu erdiz behin irteten da <b>Okendo kaletik (Donostia).</b></p> <p><b>Ordutegia:</b> <b>Irailaren 1tetik Ekainaren 30rrera:</b> 10:30tik 15:00etara. Astearteetan itxita (jai egunetan izan ezik) <b>Uztailaren 1etik Abuztuaren 31ra:</b> 10:30tik 20:00ra (Astelehenetik larunbatera, astearteak ere) Igandeetan 10:30tik 15:00etara *Baliteke ordutegian aldaketaren bat izatea.</p> <p><b>Sarrerak:</b> - Arrunta: 8,00 €/pertsone - Murriztua (erretiratuak, ikasleak, elbarriak): 6 €/pertsone - 8 urtetik beherakoak, pertsona nagusi batekin: dohain - Taldeak (25 lagunetik gora) : 7,5 €/pertsone</p> <p><b>Bisita Gidatuak (sarreraren prezioari erantsi behar zaio):</b> Gidaria aldeztu aurretik eskatuta: 100€ (25 lagunetik beherako taldeak). Eskara egiteko, bete ezazu eskara orria. Bisita gidatu eta taldeetan izena emanez: 5 €/pertsone. Ezin da aldeztu aurretik erreserbarik egin.</p>	<p>Leihatilan bertan ematen da bisita gidatuen parte hartze izena.</p> <p><b>Zerbitzuak:</b> Denda: Bideoak, kartelak, laminak, oparitarako objektuak eta Chillidari buruzko hainbat argitalpen. Liburutegia: Eduardo Chillidaren obran espezializatua, ikerlari eta ikasleei zuzendua. Liburutegian sartzeko, baimena eskatu behar da aldeztu aurretik. Audio-gidariak: Museoak ibilbidea gidari akustikoarekin egiteko aukera ere eskaintzen du. Eduardo Chillidaren beraren azalpenak eta lanei eta museoari buruzko azalpenak entzun daitezke. Prezio gehigarria: 3,50€. Espazioen alokairua: Museoan hainbat espazio aloka daitezke. Eskararak banan-banan aztertuko dira. Jarri Museoarekin harremanetan e-postaz. Pic-Nic gunea: Museoan pic-nic gunea bat dago, eta bertan, mahaiak, aulkiak eta iturria. Aparkalekuaren amaieran dago. Sarrera libre da. Elbarriak: Elbarrien beharrei egokituak igogailua, komuna eta maldak daude, elbarriei bisita errazteko. Aulki gurpildun bat ere badugu, behar duenarentzat.</p> <p><b>Jokabide arauak</b> Bistariak hainbat arau kontuan hartu behar ditu bisita egiten duenean. Museoaren kanpoaldean dauden eskulturak ukitu daitezke. Baina ez igo eskulturretara, eta ez eseri eskulturen gainean, itxuraz sendoak badira ere, lokatzez, zapaten betunaz... zikin baitaitezke. Galerietan ezin dira sartu honako objektu hauek: aterkiak, poltsa handiak, maleta txikiak, etab. Higienea dela-eta, bestalde, debekatuta dago animaliak, janaria, landareak, etab. sartzea.</p>
--	--

## GALDERAK

0. Non hartzen da garraio publikoa? Donostian Okendo kalean.

11. Abuztuaren egunen batean ixten al dute?
12. Zenbat ordaindu behar da gidari bat erreserbarik egin gabe?
13. Liburutegian kotsultak egiteko zer egin behar da?
14. Zer egin behar da museoan aretoen bat alokatzeko?
15. Zergatik dago debekatua eskultura handietara igotzea?

## HIRUGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Ariketa honetan artikulua bat duzu. Guk testu zatiak (16-20) kendu ditugu eta zuk jarri hutsuneetan tokatzen den testu zatia. *0 hutsunea* adibidea da eta bi testu zati sobera daude.

### Amatau tv: telebista itzaltzera gobidatzen gaituen telebista

Ezin da ohikoa izan ikuslea telebista itzaltzera bultzatzen duen telebista bat. Baina horrelakoa da *Amatau tv*. Ez dauka zerikusirik etxeko edozein gelatoko txokotik burua jaten digun altzari alienatzaile horrekin. (0) D eta protagonista ikuslea bera da, eta ikusleak ezagutzen dituen bizilagunak.

*Amatau tv* Bilbo Zaharreko lagun koadrila batek gauzatzen duen egitasmoa da. 2003an sortu zen, telebista komunikazio eta gizarte tresna bihurtu nahian, jardunaldi batzuk antolatzeke elkartu zen lagun talde baten ekimenez. Horretan ari zirenean, Bilboko San Francisco auzoan 80ko hamarkadan (16) \_\_\_\_\_ jakin zuten, eta telebista egiteko aukera aztertzen hasi ziren, *Telefrisko* izeneko hark erabiltzen zuen emisorea lortuta. Emisorea aktibatu zuten, eta auzoan seinalea 2004ko neguan jaso ahal izan zen. Horrela hasi zen *Amatau tv* Bilbo Zaharrari buruzko (17) \_\_\_\_\_, baina lege arazoak izan zituzten, *Canal Plus* katearen seinalean interferentziak eragiten zituztelako, eta utzi egin behar izan zioten emititzeari.

Auzotarrentzat egindako telebista. Esan bezala, eta kontraesankorra badirudi ere, *Amatau tv*-ren filosofia jendea telebista itzaltzera bultzatzea da, oso kritikoa delako ezagutzen dugun telebista erraldoiaren ereduarekin. Auzoko telebista denez, helburua bertako jendeak bere burua telebistan ikustea da, eta, (18) \_\_\_\_\_, komunikabide hau desmitifikatzea. Hori bereziki garrantzitsua da San Frantzisko bezalako auzo batean, auzo hau beste telebista guztietan ateratzen denean arrazoi txarreatatik izaten delako: arazoak, delinkuentzia, arriskua... *Amatau tv*-k, berriz, beste ikuspegi batetik erakutsi nahi du ingurua, barrutik, gauza politak ere badaudela erakusteko. Ez dute telebista euren gauzak kontatzeko erabili nahi, (19) \_\_\_\_\_, edo auzotan dauden elkarte eta talde ezberdinen egitasmoak eta lana zabaltzeko. (20) \_\_\_\_\_ uda hasieran antolatzen den Arrozt Eguna.(...)

Egimendi – AIZU! Aldizkaria

### Testu zatiak

- A. baizik eta auzoko jendeari hitza emateko
- B. bide batez
- C. esate baterako
- D. **hemen ez dago publizitaterik**
- E. horrelako telebistan
- F. lanak eskaintzen
- G. telebista honek
- H. telebista lokal bat egon zela

Hutsunea	0	16	17	18	19	20
Testu zatia	D					